

**A****Bat-bateko elkarrizketa**

Egokitu zaizun rola defendatu behar duzu zure ikaskidearen aurrean. Argudiatu zure ikuspegia eta aldeko arrazoiak eman.

Gure osasun-informazioaren berri emateko aplikazio ugari sortu dira, mundu-mailako pandemiaren eraginez. Txinan adibidez, herri-agintariak osasun-informazio pribatuz baliatzen dira beren osasun-politikak garatzeko: osasun-espeditentea, mugimenduak eta kontaktuen berri izan dezakete, eta, eskuratzen den informazioaren arabera, zerbitzu publikoak nahiz pribatu batzuk erabili ahal izateko baimena ematen diete herritarrei.

**C1 maila****Gaia: Aplikazioen erabilera zilegi da pandemia-garaian****Elkarrizketa bideratzeko:**

- Gure datuak osasun-zerbitzuen eskura jarriz bizitza asko salba daitezke, gaixorik nor dagoen eta nor ez jakiten baita.
- Birusa kontrolpean edukitzeko tresna baliagarria da, eta hedatzea eragozten du.
- Osasunari norberaren pribatutasunari baino garrantzi handiagoa ematen zaio.
- Teknologia berriak gizakiaren mesedera jartzen dira eta, erabilera egokia emanez, oso eraginkorrak dira.
- Guztion segurtasuna eskubide indibidualen gaineratik jartzen da.
- Datuak azkar bildu eta erabakiak garaiz hartzeko aplikazioak derrigorrezkoak dira.

**B****Bat-bateko elkarrizketa**

Egokitu zaizun rola defendatu behar duzu zure ikaskidearen aurrean. Argudiatu zure ikuspegia eta aldeko arrazoiak eman.

Gure osasun-informazioaren berri emateko aplikazio ugari sortu dira, mundu-mailako pandemiaren eraginez. Txinan adibidez, herri-agintariak osasun-informazio pribatuz baliatzen dira beren osasun-politikak garatzeko: osasun-espeditentea, mugimenduak eta kontaktuen berri izan dezakete, eta, eskuratzen den informazioaren arabera, zerbitzu publikoak nahiz pribatu batzuk erabili ahal izateko baimena ematen diete herritarrei.

**C1 maila****Gaia: Aplikazioen erabilera ez da zilegi pandemia-garaian****Elkarrizketa bideratzeko:**

- Ez da zilegi birus bat gelditzeko aitzakiarekin herritarren pribatutasun-eskubidea urratzea.
- Norberaren datuak publikoki erabiltzea legearen kontrakoa da.
- Bi mailatako herritarrak sortu daitezke horrela. Estigmatizazioa eragin dezake eta zerbitzuak eskuratzeko aukera kentzen zaie batzuei.
- Horrelako praktikak beste alorretan erabiltzeko arriskua asko handitzen da eta gobernuen aldetik gehiegikeriak areagotzekoa.
- Norberaren intimitateari erasotzen zaio, eta askatasun indibidualaren galeran beste urrats bat ematen da.
- Aplikazio horiek erabiltzera iritsi gabe, badaude pandemia kontrolpean izateko bestelako baliabideak: itxialdia, pertsonen arteko distantziak, higiena eta abar.

**HIZTEGI LAGUNGARRIA:**

- Eskubidea(k) URRATU
- Zerbait ZILEGI IZAN
- Jarduera bat, zerbait ERAGINKORRA IZAN
- Zerbaiten AITZAKIAPEAN aritu
- Zerbait LEHENETSI
- Zerbait ERAGOTZI

**LAGUNTZEKO ZENBAIT GALDERA:**

- Birusa gelditzeko helburuz sortu den teknologiak badu arriskurik beste erabilera batzuetarako erabiliz gero?
- Birusa geldiarazteko behar-beharrezkoa da teknologia?
- Jendeak segurtasun-neurriak norberaren eskubideen gaintik jartzea hobesten duela iruditzen zaizu?
- Txinaren eredia beste herrialde batzuetara zabalduko dela uste duzu?